

**2010eko URTARRILAREN 14an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko urtarrilaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Iñigo Aginalde Lertxundi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - **2009ko abenduaren 3an egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2009 urteari dagokion ekarpenaren kitapena burutzea, hala badagokio.**
4. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2009ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko kuotaren ordainketa, hala bada.**
5. **2010 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onspena, hala bada.**
6. **2010 urterako euskera ikastaroetako diru-laguntzen onspena, hala bada.**
7. **Larraulgo Urraitz etxearen eranskinaren lehen erabilerako baimen eskaera. E.A.**
8. **Larraul eskola bideratzeko eman beharreko pausoak finkatu.**
9. **Egunkariaren aldeko mozioa.**
10. **I.A. Zinegotziaren kargu uztea.**
11. **Fakturak eta ordainketak.**
12. **Beste batzuk.**
13. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

■ 2009 urteko abenduaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta mahai gainean uzteko erabakia hartzen du Udalbatzak.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

62/2009 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 14koa, A.M. andreari Gurutzeaga baserriaren inguruan egindako lanen legeztapen baimena, ebazten duena.

63/2009 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23koa, M.E. jaunak A. L. jaunaren terrenoetan bota dituen soberakin lurak legezatzeko emandako baimena, ebazten duena.

01/2010 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 7koa, I. U. jaunak Behobide Buru baserriko lur sailetan animalientzako estalpe bat egiteko obra baimena ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2009 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2009 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoa dela eta Larraulgo Udalbatzak 2009ko uztailearen 29an aurkeztutako egitasmoaren aurrekontua onestu zuela, hau da, 2.460,00€, aipaturiko diru kopuruaren % 60^a ordaintzeko erabakia hartu zuelarik.

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, aurkeztu dituela:

-2009. Urteko gastu eta diru-sarreraren kitapena, egitasmoz egitasmo.

-2009. Urtean Larraulgo udalaren egoera argitzen duen agiria. Non Larraulgo Udalak 984,00 euro ordaindu behar dituen egitasmoa aurrera eramateko onestutako aurrekontua bere osotasunez ordaintzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: “Beterri Aiztondo gerora bidean “ 2009 ekitaldirako onestutako aurrekontuaren, hau da, 2.460,00 eurotako kopuruaren % 40aren ordainketa burutzea, hau da, 984,00 euro.

LAUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2009KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO KUOTAREN ORDAINKETA, HALA BADA

Ikusirik 2009ko abenduaren 4an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2009 ekitaldiko 3 eta 4. Hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 14.382,94 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.382,94 eurotako ekarpena burutzea 2009 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 14.382,94 eurotako gastua onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

2010 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Bertaratuak, gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen du.

SEIGARREN PUNTUA

2010 URTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak 2009ko urriaren 1ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2009-2010 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik abenduaren 31rarteko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betezen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
<i>I.S.G.</i>	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	ESUKARA
J.G.A.	ESUKARA

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2009-2010 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea.

BIGARRENA.- Diru-laguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako diru-laguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARREA.- 2010 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO URRAITZ ETXEAREN ERANSKINAREN LEHEN ERABILERAKO BAIMEN ESKAERA. E.A.

Ikusirik E.A. jaunak Larraulgo Urraitz etxean eraiki duen eranskinaren lehen erabilera baimena eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, eta obra berriko eskritura aurkeztu dituela.

Ikusirik 2009ko abenduaren 18an Udaleko Aholkulari Teknikaria den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean dioena:

“E.A. jaunak, Urraitz etxeko eranskinaren lehen erabilerarako luzatutako baimena eskaera ikusirik, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen exekuzio proiektuari egokitzen zaiola adierazten dut, eta lehen okupazioko baimena

lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea”

Bertaratuek, gaia azterturik, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- E.A. jaunak Larraulgo Urraitz etxean eraiki duen eranskinari, lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri E.A. jaunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

LARRAUL ESKOLA BIDERATZEKO EMAN BEHARREKO PAUSOAK FINKATZEA

Ondorengo mozioa aurkezten da:

“LARRAULEN ESKOLA TXIKIA!!

Larraulen 35 urte dira hezkuntza zerbitzua herrian bermatzen ez dela. Herria hustutzeak eskola ixtea ekarri zuen. Azken, ordea, Larraul biziberritu egin da, populazioa lehengo neurrira etorri da 15 urteotan, eta herrian hezkuntza zerbitzu propioa izateko datu demografikoak dituela ikusita, 2007 urtean hasi ginen lanean eskola zerbitzua herrian jartzeko.

2008ko Martxoan udal honek Larraulgo umeen eskolaratze aldera eta indarrean zeuden baldintza guztiak betez Eskola Txiki baten sorrera sustatu eta eskatu zuen. Udalak horretarako lokal duin bat jarri, ikastetxeen araudiak markatzen zituen egokitze lanak burutu eta bere mantenu eta garbiketarako konpromezua hartu zuen. Udalaren helburua orduko eta egungoa, eskolaratzea, umeek bizi duten ingurumen horretan txertatzea zen, beren barneratze soziala ezagun eta gertuko egiten zitzaien inguru batean ematen zelarik, era berean, honek gurasoen partaidetza errazten zuen hezkuntza prozesuan.

Ikuspegi horretatik, bai orduan eta bai egun, eskola txikiek erabateko zentzua dutela ulertzen dugu, eskolen mapa eta zentruen sortzea, Larraul bezalako herri txikietako behar eta eskaeretara moldatuz.

Hasiera baten Hezkuntza Saileko Asteasuko Pello Errota Ikastetxe pean egongo zen 2-6 urte bitarteko lekualdatutako gela bat soilik onartu zuen. Gure eskaerak asebetetzen ez bazituen ere, bainan bilatzen genuen helburura iristeko

aurrerapauso bat zela ulertuz, Udalak azpiegitura jarri eta Siletik emandako irizpideei jarraituz berau egokitzeko lanak burutzeko konpromezua bete zuen. Lekualdatutako gela hau 2008-2009 kurtsuan jarri zen abian.

Otsailaren 3ko 21/2009 dekretua EAEn unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen argitaratuta, Udalak berriz ere, eta 12 urtera arteko eskolaratzeko, Eskola Txikia sortzeko eskaera egin zuen horretarako eskatzen ziren baldintza guztiak bete eta egiaztatu zituelarik. Gauzak horrela Udal honetan 2009ko apirilak 30 sarrera datarekin Ikastetxeen Zuzendariak apirilaren 8ko data zuen jakinarazpena jaso zuen, honek muinean zera zioen:

1.- Asteasuko Pello Errota LHI ikastetxearen menpean dagoen Larraulgo Haur Hezkuntzako unitatean gaur egun eskolatuta dauden ikasleek Lehen Hezkuntzako seigarren maila amaitu arte bertan eskolatuta jarraituko dutela bermatzen da.

2.- 2009-2010 ikasturtean martxan jarriko da haur Hezkuntzako bigarren gela, eta gela hori ere, gaur egun gertatzen den bezala, Pello Errota LHI ikastetxearen menpean egongo da.

3.- 2010-2011 ikasturtean ikastetxea modu independentean jarduten hasiko da.

4.- Datorren 2009-2010 ikasturtean zehar jarduketa egokiak zehaztuz joango dira, ikasle guztiak eskolatzeko behar diren espazioak antolatzeko, edo, bestela, eskolatzeko egokirako baldintzak beteko dituen ikastetxe bat eraikitzeko. Jarduketa horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren premien programan jasota egongo dira.

Udalbatza honek, gure herrian lehen hezkuntzako 6. ikasturterainoko Eskola Txiki bat sortze aldera elkarlanerako borondate osoa agertu dio Hezkuntza Sailari, hau baita gure bizilagunen ustez beren, gure umeak eskolatzeko sistematik egokiena barneratze sozial eta gertuko elkarbizitza batetarako.

Hezkuntza Sailarekin izandako bilera batzuen ondoren, berak onartutakoa ez duela beteko esan digu.

Ikusirik 2010-2011 ikasturteko matrikulazioak otsailean direla, ez betetze honekin, Larraulgo umeak ezin ditugu Larraulgo eskolan matrikulatu.

Egoera larri honen aurrean, mozio hau aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaida eta onar dezan:

LEHENDABIZI.- *Udalak/Erakundeak bere babes osoa adierazten dio Larraulgo Udalarari bere herrian eskola propio bat izan dezan.*

BIGARRENA.- *Hezkuntza Sailak 2009ko apirilak 8an onartu zuen bezala, 2010-2011 ikasturterako, Larraulen Eskola Txiki independente bat sortzeko onarpena bere osotasunean bete dezala.*

HIRUGARRENA.-*Udalak/Erakundeak onartutakoa berri emango dio Larraulgo Udalarari eta Hezkuntza Saileko Sailburuari.”*

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: *Larraulen eskola txikia !! mozioa onestu eta Gipuzkoako eta Bizkaiko herri guztietara eta Tolosaldeko Tolosaldea Garatzen, Tolomendi eta Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eudelera igorri mozioari euren atxikimendua eman dezaten.*

BIGARRENA: Hezkuntza saileko Isabel Celaá sailburuarekin hitzordua hartu, Larrauldarren eskubidea den eskola zerbitzua herrian abian jarri dezan.

HIRUGARRENA: Larraulgo Herriari jakinaraztea, eskolari buruz orain arte zein pauso eman diren eta ondorengo pausoak zein izango diren.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
EGUNKARIAREN ALDEKO MOZIOA

“Larraulko Udalarari *Egunkaria auzia*-ri buruzko honako mozioa aurkezten dio:

Udal honek:

- *Egunkaria*-ren aurkako prozesua salatzea: Espainiako Auzitegi Nazionalak eta Guardia Zibilak 2003ko otsailaren 20an euskarazko egunkaria itxita, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea urratzeagatik, euskararen aurkako erasoak egiteagatik eta Euskal Herriaren kontrako operazio politikoa burutzeagatik.
- *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa ez egiteko exijitzea Espainiako Auzitegi Nazionalari. Eta, egiten bada, euskarazko kazetaren kontrako epairik ez emateko, auzipetu guztiak baldintzarik gabe libre uzteko, eta *Egunkaria*-ri eta auzipetu denei kalteordainak ordaintzeko exijitzea.

- Elkartasuna eta babesa adieraztea auzian hasieratik inputatutako guztiei, eta haiek jasan behar izan dutena salatzea (atxiloketak, inkomunikazioak, tratu txarrak, torturak, kartzelatzeak, sakabanaketak...).
- Hurrengo asteetan *Egunkaria*-ren alde egiteko konpromisoa hartzea.
- Larrauldar guztiei dei egitea ekimenetan parte hartzeko eta inplikatzeko.”

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Egunkaria auzia-ri buruzko mozioa onestu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri herritarrei jakinarazi.

HAMARGARREN PUNTUA

I.A. ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA

Ikusirik Larraulgo Udaleko zinegotzia den Iñigo Aginalde Lertxundi jaunak Larraulgo Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzailea den Ane Gomez Urteaga andrearen aurrean 2010 urteko urtarrilaren 11an egindako agerraldia, akta jaso egonik, zinetan adierazten duen Larraulgo udal ordezkari karguari uko egiten diola arrazoi pertsonalak direla eta.

Ikusirik Herri Erakundeen antolamendua, funtzionamendua eta eraentza juridikoa arautzen duen erreglamenduak, 2568/1986 Errege Dekretuak, 9.3 artikuluan xedatutakoaren arabera udal ordezkari batek kargua uzteko idatziz aurkeztu behar diola Udalbatzarrari.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Iñigo Aginalde Lertxundi jaunak aurkeztu duen zinegotzi kargu uztea onartzea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Junta Elektoral Zentralari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	501,36
IBERDROLA	121,77
IBERDROLA	202,80
IBERDROLA	16,99
IBERDROLA	136,03
IBERDROLA	31,82
IBERDROLA	12,56
IBERDROLA	9,31
IBERDROLA	101,05
IBERDROLA	142,20
REPSOLGAS	173,73
REPSOLGAS	382,19
TELEFONICA	17,42
TELEFONICA	67,53
TELEFONICA	20,42
TELEFONICA	88,15
EUSKALTEL	265,68
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	366,10
KIROLZER	106,30
KIROLZER	96,70
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	7.315,14
ZELAI	59,65
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.216,18
MANPEL	167,07
ZITU	1.490,60
BERRI LANTEGIA	263,03
FONGUI,S.A.	35,86
UROLA	160,06
KOLDO JAUREGI	248,24
BERRI LANTEGIA	109,70
EBA ERKIZIA BRION	266,01
FERNANDO ESTEBAN	1.353,58
KOPIDIN	92,66
GAZTEZULO	18,00
MRW	7,02
PAPERTXULO	13,64
TOLOSALDEA GARATZEN	445,17
FERRETERIA BARBE	240,44
JON TEJERIA OTERMIN	500,00
SAINT-GOBAIN	135,60
MAIZ ZURGINDEGIA	249,40
CALPARSORO INDUSTRIAL	8,56

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	44,02
MANPEL	110,66

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **19.410,40** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo mozioa aurkezten da:

ALKATEARI EPAIKETARIK EZ!

Aramaioko alkateak bederatzi urtetako inhabilitazio zigor eskaera bati aurre egin behar dio herritarren iritziari bide ematearen akusaziopean. Horrela laburbildu dezakegu Arabako Audientzia Probintzialeko fiskalak. Estatu Abokatuaren laguntzaz, bultzaturiko epaiketa.

Kasuaren aurrekariari erreparatuta aurrean dugun bidegabekeriaren tamainaz ohartuko gara. Abiadura Handiko Trenak Aramaioko bailara zeharkatzen du eta eragin handia izango du udalerrian, hori hizpide hartuta 2006ko azaroan Aramaioko 685 herritar, erroldatuta zeudenen erdia baino gehiagok, eta hainbat auzo alkate, elkarte zein udalerriko kirol, kultur eta jendarte taldek Abiadura Handiko Trenaren gaineko iritzia galdetzea eskatu zioten udalari. Udalean aho batez onartu zen Herri Kontsulta egitea baina Estatu Abokatuak bultzatuta Arabako Audientzia Probintzialak Herri kontsulta debekatu zuen berau egitea ezinezko bilakatuz. 2007ko udal hauteskunderen ostean herritarrek beraiek antolatu zuten herriaren iritzia ezagutzeko prozedura eta elkarte zein talde ezberdinen parte hartzeaz auzoz auzo garatu zen 2007ko irailaren 28 eta 30 bitarte. Estatu Abokatuak berriro jo zuen galdeketatzat hartu zuenaren kontra, epaileak berriro debekatu zuen, baina herriaren aurka ezin zuten egin herritarren ordezkarien aurka egin dute, alkatearen aurka, hain zuzen ere.

Fiskalak alkatearen aurka aurkezten duen froga nagusia alkateak egun horietako batetan udaletxearen ateak ireki izana da, eta horretan bakarrik laburbildu

daiteke akusazio guztia. Udaletxearen atea irekitzeagatik bederatzi urtetako inhabilitazioa, herritarren iritziari bide emateagatik epaitu nahi dute Aramaioko herritarren gehiengoak aukeraturiko udal ordezkari bat. Argigarria oso.

Epaiketa honen nondik norakoak eskandalagarriak dira, baina are larriagoak dira epaiketa honen ondorioak, aurrera begira finkatu nahi dituen aurrekariak. Finean, zigortu nahi dena udal jardueran herritarren iritzia ezagutu nahi izatea da, herriari hitza ematea delitu bilakatu nahi dute eta horrela udal jarduera normalizatua erabat baldintzatuko dute. Udal ordezkarien jarduera normala dena interes politiko jakin batzuen arabera judizializatzea eta herriari hitza emateagatik inhabilitazio zigorra eskatzea udalen autonomiaren aurkako eraso larria da, udalen autonomia kolokan jartzen du. Eta udal ordezkari gerenok ezin dugu hori onartu.

Honen aurrean ezinbestekoa da herritarren iritzia jakin nahi izatea ezin dela delitu izan aldarrikatzea. Guztiz kontrakoa, herriari hitza ematea udalen funtzionamendu demokratikoan sakontzeko ariketa bat da, herritarrei ahalik eta erabakigune esparru zabalenak eskaintzea udal ordezkarien bete beharra izan beharko litzateke, inolaz ere ez delitu. Are gehiago Abiadura Handiko Trenaren moduko azpiegitura handiez hitz egiten dugunean. Gure udalerrietan eragin handia izan dezaketen egitasmoen kasuena, gure udalerrien etorkizuna modu garrantzitsuan baldintzatu dezaketen egitasmoen aurrean, ezinbestekoa litzateke herritarren iritzia ezagutzeko udal batek dituen bide guztiak jorratzea, informazioa zabaltzea, eztabaida bultzatzea, eta nola ez, herri galdeketa edo kontsulta bitartez herritarrei erabakiguneak eskaintzea ere.

Aipatu guztia kontutan hartuta honako mozioa aurkezten dugu udal oso bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek bere babes osoa agertzen dio herriaren hitzari bide ematearen akusaziopean bederatzi urteko inhabilitazio zigorrari aurre egin behar dion Aramaioko alkateari; halaber, aipatu prozedura judiziala erabat bidegabea izaki akusazioa eta zigor eskaera erretiratzea eskatzen dio fiskaltzari, eta bide beretik, prozedura bera bertan behera utz dezan eskatzen dio epaileari.

2.-Udal honek kezka handiaz hartzen du udal ordezkarien jarduera normala dena interes politiko jakin batzuen arabera judizializatzea eta herriari hitza emateagatik inhabilitazio zigorra eskatzea udalen autonomiaren aurkako eraso larri gisa hartzen du.

3.-Udal honek herriaren iritzia jakin nahi izatea ezin dela delitu izan aldarrikatu nahi du, are gehiago, herriari hitza ematea herritarren ordezkari garenon betebehar eta demokrazian sakontzeko ariketa bezala ulertzen dugu.

4.-Udal honek Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegitura handien kasuan, baita udalerrien etorkizunean eragin handia izan dezaketen bestelako egitasmoen aurrean ere, toki erakundeen eta herritarren iritzia kontutan hartzea eta erabakigunea herritarrei zabaltzea oso beharrezkotzat jotzen du.

5.-Udal honek onartutakoaren berri emango dio Aramaioko udalari, Arabako Audientzia Probintzialari, bertako fiskaltzari zein inguruko hedabideei ere.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

BAKARRA: “ALKATEARI EPAIKETARIK EZ!” mozioa onestu.

Jarraian planteatzen da, Udalbatzarraren ordua aldatzea, adosten delarik hileko lehen ostegunean izango dela arratsaldeko 18.30 orduetan.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA